



# San Miguel ikastetxea



Bai, dudarik gabe, aspaldian egoera ekonomikoa ez da ona.

Badaude beste batzuk gu baino une latzagoak jasaten ari direnak ordea.

Hala esan digu Leticia Arrunategik, Ima Sumaken ahizpak, Peruko Hego Cumbibiratik.

500 biztanle bizi diren auzoan ez dute ur korronterik, ezta estolderiarik ere, eta argi indar eskas eskasa dute. Janaria oso urri eta gosaltzeko esnea erosteko xentimorik ez.

Gu haiei laguntzera prestatu gatzaizkie. Zergaitik? Gosaria egiteko dirua bidali nahi diegulako eta era berean gu geu aberastuko garelako. Eskuzabaltasuna, elkarkidetza eta besteenganako begiruneak ematen duen bizipoza ordainezina delako.

Zer bururatu zaigun? Ikastetxeko egutegia egin eta saltzea. Lortutako diruarekin ahal denik luzaroen gosaria ematea Cumbibirarrei, batez ere haurrei.

Egutegi horretan irakasle, Samielako langile guztiak, eta zuen seme alaben argazkiak agertuko dira dotore-dotore atondurik hamabi hilabetetako orrietan

Leticia ondo ezagutzen ditu hango beharrak eta hemendik bidalitako gutxirekin han lan handia egin izan du sarritan. Proiektu honi "Samielatik Cucunbibirara gosari solidarioa" deitu diogu.

Horretarako zuen baimena eta laguntza eskatzen dizuegu.

Horrela, huskeria baten truke, etxean oroigarri eder bat izateaz gain gure familiek besteko suerterik ez dutenen egoera larria apurtxo bat arin dezakegu.

Aurrerantzean izango duzue guzti honen berri gehiago.

Norbaitek proiektu honetan parte hartzeko eragozpenik balu abisatzea eskertuko genizueke.

Eskerrik asko.